# 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Vitalix-en helburua da larrialdi-egoeretan erantzun-denbora murriztea, bizitzak salbatzea eta komunitatea aktibatzea. Horretarako, gure proiektuak hainbat baliabide estrategiko behar ditu, lau kategoriatan banatuta: giza baliabideak, finantza-baliabideak, baliabide intelektualak eta baliabide fisikoak




**Baliabide fisikoak**

Vitalix-en funtzionamendu egokia bermatzeko ezinbestekoak diren elementu teknologiko eta fisikoak honako hauek dira:

Ordenagailuak, smartphoneak eta garapenerako beharrezkoak diren lan-tresna teknikoak. Zerbitzari profesionalak eta hodei-azpiegitura, asteko 7 egunetan eta eguneko 24 orduetan martxan egongo direnak. Komunikazio-sistemak: sare sozialak, webgunea eta telefonoak. Larrialdietarako kit fisikoen fabrikazioa eta hornidura. Etorkizuneko fase batean: egoera kritikoetan botikin adimendunak entregatzeko gai izango diren dron medikoak

Osagai hauek guztiek zerbitzuaren egonkortasuna eta segurtasun operatiboa bermatzen dute.

**Baliabide intelektualak**

Vitalixen baliabide intelektualak aktibo ikusezin baina funtsezkoak dira, bereizketa eta balioa sortzen dutenak. Haien artean daude gure marka, nortasun korporatiboa eta jabetza intelektuala; geokokapena, adimen artifiziala eta segurtasuna dituzten programak; lehen sorospenetako eduki interaktiboak; erabiltzaile eta boluntario ziurtatutako datu-base segurua; eta datuen babesa bermatzen duen zibersegurtasun-egitura. Hauek dira gure lehiakortasun abantaila eta berrikuntzaren oinarria.

## Giza baliabideak

- Proiektu zuzendaria (CEO): Aliantzak kudeatzea, hazkundea sustatzea eta estrategia definitzea bere egitekoa da. Bere lidergoa, antolakuntza eta berrikuntza ikuspegia funtsezkoak dira.

- Garapen Teknologikoko Taldea (CTO eta programatzaileak): Aplikazioa sortu, mantendu eta babesten dute. Haien ekarpena sormen handian eta ezagutza tekniko sakonean oinarritzen da.

- Osasun sektoreko aholkulariak: Arreta medikoko protokoloak gainbegiratzen eta eduki hezitzailea egiaztatzen dute. Haien esperientziak segurtasun sanitarioa eta legezkotasuna bermatzen du.

- Osasun boluntario ziurtatuak: Larrialdi-egoeretan modu zuzenean esku hartzen duten pertsonak dira. Haien konpromisoa eta enpatia Vitalix-en balio soziala osatzen dute.

- Marketin eta Komunikazio arduradunak: Parte-hartzea sustatzen dute, komunitatea sortzen eta herritarrekin lotura ezartzen dute.

- Datu eta zibersegurtasun talde teknikoa: Datuen segurtasuna eta erabiltzaileen konfiantza bermatzen ditu.

Vitalix-en eraginkortasuna kolaborazio "Ekosistema" baten bidez bermatzen da, eta bere aliatu eta harreman estrategikoak funtsezkoak dira. 112 / SOS Deiakek koordinazio eraginkorragoa eta erantzun azkarragoa eskaintzen ditu. Gurutze Gorria, DYA eta osasun heziketa zentro ziurtatuek lehen sorospenetako akreditazioa ematen dute. Udalek eta osasun publiko zerbitzuek legitimizazioa, hedapena eta finantzaketa laguntzen dituzte. Aholkularitza juridikoa eta zibersegurtasuna legearen betetze eta datuen babesaren oinarri dira. Aliantza hauek hazkunde segurua ahalbidetzen dute, arriskuak gutxitzen dituzte eta sinesgarritasuna hobetzen dute




## Finantzia baliabideak

Baliabide ekonomikoek aukera ematen diote Vitalix ezartzeko eta mantentzeko. Funts hauek sortzen dira StartInnova eta erakunde publikoen ekarpen hasierakoetatik, baita plataforman parte hartzen duten udal eta erakundeen urteko lizentzien ordainketetatik eta erabiltzaile bakoitzeko kuotetatik, hilean 1,99 € edo urtean 15 € direlarik. Halaber, diru-sarrerak lortzen dira larrialdietarako kit fisikoen salmentaren bidez. Etorkizunean, zerbitzu etiko eta arautuak integratzea aurreikusten da. Iturri hauek Vitalixi errenta egonkor eta etengabeak sortzeko potentzial handia ematen diote.

**BIBLIOGRAFIA:**

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, Mª E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.

-STARTINNOVA plataformako materiala.

-http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas

- Logoa: https://desing.com/_s

-Argazkiak:

https://chatgpt.com/